

20.000 haur

**Maiden IANTZI
GOIENETXE**

Bonba, hilotz eta herri hautsiak Doraemonekin tartekatzen direnean, ez dakizu irudi horiek ezkutatu ala erakutsi, dagoe-neko ikusi baditu ere. Babestu nahi duzu, eta bertze aldera begiratzea ez da babestea, baina genozidio bat zuzenean jarraitzea ere ez. Azaldu ezina azaltzen saiatzen zara. Finean, marrazki bizidunetan ere badaude pertsonaia gaiztoak. Errealitatean ez dago salbatuko gaituen poltsiko magikorik, ordea.

Ibaitik Itsasora Palestinaren aldeko ibilaldia euri tanta bat izan da, eta itsasoa euri tantaz osatua dago. Partaide batzuk itxaropentsu zeuden, hazten eta indartzen ari diren herri mobilizazioek

gobernu eta enpresak mugituko dituztelakoan. Albiste katastrofikoak ikusita, bertze batzuk ezkorragoak ziren protesta-ekintzek duten eraginarekin. Batzuk eta bertzeak, denak han zeuden, ahal dena egiten, eta horrek berak bete ditu, hori eraman dute etxera. Palestinarrek zerbait jaso dute? Haiek errana da gure babesa iristen zaiela, eta ezinbestekoa zaiela gainera.

Euskal Herria Gazarekiko elkartasunean abangoardia izaten ari da munduan, gu ere herri zapaldua eta ukatua garenez. Irailaren 27a egun aproposa da hori oroitarazteko, 50 urte bete dira-eta Francoren azken fusilamenduetatik. Txiki eta Otaegiren oroimena bizirik da-

go, eta herri hau ere bai. Palestinan, ordea, 65.300 pertsonatik gora hil ditu Israelek 23 hilabeteen, horietatik 20.000 haurrak. Orduero ume bat baino gehiago hiltzen ari da, Save The Childrenek ohartarazi duenez. Gazako haurren populazioaren %2 inguru da hori. Bertze 21.000 ume betirako ezindu dituzte, 42.011 zauritu, eta bost urtetik beherako 132.000 haur hiltzeko arriskuan daude goseteagatik.

Hau gelditzeko zerbait egiteko gai izan eta egiten ez dutenak konplizeak dira, eta sarraskiak eragina izanen du, etorriko da buelta, etorriko zaigu buelta Europara ere. Gure haurrak ere badira. Ezin gara konplize izan. •

Orgasmoa

**Xabier Mikel
ERREKONDO**

Orgasmoa kafe likorea, amarettoa eta Baileysarekin prestatzen den koktela da, edo Peche-muxika + Kas-li-moia, edo, egia esan, bakoitzak nahi duen bezala prestatzen du bere orgasmo-koktela, baina, pentsatuko duzuen moduan, ez naiz etorri hona edariaz hitz egitera...

Orgasmoa edarietan gustagarria izango da askorentzat, baina sexuan helburu gorena da gehienontzat eta agian horrexegatik saiakeran ibilitakoez kontatzen dira hainbeste gezur.

Ez da egia guztiok eta nahi dugunean lortzen dugunik.

Ez da egia, harago, oso kaltegarria izan zen Freudek zabaldutako teoria,

besteak beste barneraketa bidez orgasmoa lortzean bilakatzen zela haurra emakume (galde Marie Bonaparteri...).

Ez da egia soilik barneraketarekin bai ala bai lor litekeenik emakume bikotearen orgasmoa (datuek diote %20 ere ez dela; irakur “El Secreto de las mujeres. Claves científicas de la sexualidad femenina”, Elisa Brune, Yves Ferroul). Beste kontu bat da mugimenduan klitoria igurzten bada...

Egia da badela orgasmorik ezagutu gabe hilobiraturik. Gajoa. Gizajoa.

Egia da, alabaina, esanak esan, ipuinak ipuin, zora(e)garria dela: zoramenera zaramatzana, gorputza, oinetatik bururaino, bizkar bihurritutako izerdi gozotan, tximista ziztadek zeharkatuz,

dar-dar kontrolaezinean... eta segidan egarria sortzen duena berriro zoratzeko.

Egia da sexuan orgasmoa zerua ukitzea dela. Nork bere zerua.

Egia da bikotearen azal leunean galtzea, bizkar blaitua zubia bailitzan tenkatzea eta gerriaren dantza hipnotikoan horditurik arnasa taupadaren aieneka gero eta biziago begietara begira sentitzea zeruan eldarnio erogarrian hegan egitea dela.

Bada, horiek biak elkar batzea, hori bai, hori gaindiezina da.

Egiarik egiena da bakoitzak bere era sentitzen dituela orgasmoak, orgasmoetarik bakoitza, eta izan bitez anitzak eta ugariak, ederrak guztiak, baina izan bitez. •